

"BAIONA, 1964: euskara batuaren zedarria" **erakusketa, Baionako Euskal Museoan ikusgai**

-Non: Baionako Euskal Museoan.

-Data: 2018-12-04 - 2019-01-13.

-Edukia: Baionako Biltzarraren ekarpenari eta garaiari luzatzen die begirada "Baiona 1964: euskara batuaren zedarria" erakusketak.

-Xarles Videgain euskaltzainburuordea: "Baionan, Cordeliers karrikan, 1964ko agorrilean, euskara batuaren oinarriak jarriak izan ziren, erabaki zehatz batzuk aurkeztu zituelarik talde-lan batek, Txillardegiren inguruan eta Euskal Idazkaritzaren eskutik. Aitzineko urteetan ere batuaren asmoa emeki-emeki zoritu zen, Baionan agertu arte. Ondoko urteetan, berriz, Baionako erabakiak ezagutu bai eta ontzat harturik, 1968ko Arantzazuko bilkura antolatu zuen Euskaltzaindiak, ordutik Euskal Herriko gizartean oihartzun zabala hartu duelarik euskara batuak".

BAIONA (2018-12-04). Irailaren 13an "Euskara batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018" izeneko kolokioa antolatu zuen Euskaltzaindiak, Baionako Herriko Etxean. Bertan, euskararen batasunari Ipar Euskal Herritik egindako ekarpena gogoratu eta aztertu zen. Era berean, aurrera begira euskara batuak Ipar Euskal Herritik begiratu dituen erronkak zeintzuk diren eztabaidatu zen kolokio horretan. Izan ere, 1960. hamarkadaren hasieran ekarpen esanguratsua egin zitzaion euskararen batasun prozesuari Ipar Euskal Herritik.

Orain, Euskaltzaindiak erakusketa ikusgarri batean gogoratu nahi izan du 1964ko bilkuretan gertatutakoa eta Baionako batzar horietan euskara batuari eginiko ekarpen garrantzitsuak. Horretarako, Euskal Elkargoaren, Euskararen Erakunde Publikoaren, Baionako Herriko Etxearen eta Crédit Agricole-ren babesa jaso du, Baionako Euskal Museoaren laguntza ahaztu gabe.

Esan bezala, gertaera horiei buruzko erakusketa antolatu du Euskaltzaindiak, eta hori guztia erakutsiko du panelen, testigantzen, irudien eta dokumentu originalen bidez Baionako Euskal Museoan, gaurtik 2019ko urtarrilaren 13ra bitarte.

Euskal Idazkaritzaren jarduna

Euskaltzaindiak sortzetik beretik hartu zuen hizkera literarioa osatzeko xedea. Ortografia finkatu, hiztegia eguneratu, euskaldun guztientzat idatzarau berak zehaztu eta beste hainbat arlo landu behar ziren euskarak geroa izan zezan. Baina ez zen adostasunik lortzen, batasun hori nola egin, zeren arabera, zer hobetsi, zertan oinarritu. Euskalkien aberastasuna galtzeko beldur ziren.

Euskara batuaren premia areagotu egin zen 60ko hamarkadan. Txillardegik, beste batzuekin batera, bere gain hartu zuen ardura. Lantaldea osatu eta ia urtebetez aritu ziren lanean, Baiona Ttipian, Euskal Idazkaritza elkartearen babesean. Finean, lantalde horren emaitzak osatu zuen

euskara batuaren lehen oinarria, eta 1964ko agorrilaren bukaeran aurkeztu zieten Euskal Idazkaritzan bildu ziren Euskal Herri osoko berrogei bat euskaltzaleri. Henri Grenet auzapez-diputatuak eta gainerako hautetsiek ongiatorria egin zieten herriko etxean.

Nagusiki zortzi lagun aritu ziren lantaldean: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Jean-Louis Davant, Eneko Irigarai, Jesus Solaun, Telesforo Monzón, Roger Idiart, Pierre Andiazabal eta Jean Hiriart-Urruty. Lantaldearen proposamen zehatzak: hitzen deklinabidea, ortografiarako irizpideak, izan eta ukan aditzak, eta *h*-dun hitzen zerrenda bat.

Baionako Biltzarreko babesle Pierre Lafittek zintzo-zintzo helarazi zituen proposamenak Euskaltzaindira, eta, hala, abiapuntu sendo bat jarri zitzaien eskura aurrerantzean bidea urratu beharko zutenei. 1968ko Arantzazuko Biltzarrean Euskaltzaindiak euskara batzeko lehen arau-multzoak finkatu zituen.

Euskara Batuaren Adierazpena: atxikimendu berriak

Ipar Euskal Herriko zenbait erakunde eta elkartek Euskal Museoko erakusketaren inaugurazioa profitatu dute Euskara Batuaren Adierazpenari (EBA) atxikimendua adierazteko.

Hona hemen gaur Baionan EBA izenpetu duten elkarte eta erakundeen zerrenda:

I. Euskal Elkargoaren lehendakaria eta Baionako auzapeza, Jean Rene Etxegarai.

II. Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria, Beñat Arrabit.

III. Mauleko auzapeza, Mixel Etxebest.

IV. Euskal Irratiak-en lehendakaria, Maritxu Lopepe.

V. IKER-UMR 5478 ikergunearen zuzendaria, Urtzi Etxeberria.

VI. Euskal Kultur Erakundearen zuzendaria, Pantxoa Etchegoin. (Arantzazun sinatu zuten, baina gaur berriro sinatu nahi izan dute).

VII. Seaskaren lehendakaria, Paskal Indo. (Arantzazun sinatu zuten, baina gaur berriro sinatu nahi izan dute).

VIII. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea. (Arantzazun sinatu zuten, baina gaur berriro sinatu nahi izan dute).